

IRALE

Euskalduntzea ez da helburu bakarra

IRALEk, Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntzeko programak, erronka horri heldu zion duela 30 urte. Euskaldundu gabe dagoen irakasle kopurua txikia da, eta beraz, irakasleen euskararen hobekuntzan jarri dute arreta. Dena dela, sindikatuen iritziz, IRALEk ikerketa sakona eta diseinu berria behar ditu.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

DANI BLANCO




IRALEko ikasleak Donostiako Larratxo auzoan dagoen Irakastegian.


SIADKOK 1976-1977an Euskal Autonomia Erkidegoan egin zuen ikerketaren arabera, sektore publikoko Lehen Hezkuntzako irakasleen %5ak baino gutxiagok zioen euskaraz bazekiela. Nafarroan beste hainbeste gertatzen zen. Franco hil ondoren, eskolak euskaraz emateko grina nabaria zen, irakasleak nahikoa ez ordea. Batzuek ez zekiten euskaraz, eta beste batzuek, jakin arren, alfabetatu premia zuten. Gaur egungo datuak bestelakoak dira. EAEko irakaskuntza publikoa eta

pribatua kontuan hartuz eta Haur Hezkuntzatik unibertsitate arteko maila denak zenbatuz, irakasleen %80ak baino gehiagok EGA edo maila bera duen Bigarren Hezkuntza Eskakizuna dauka. %5ak Lehen Hezkuntza Eskakizuna dauka, eta gainerakoak ez dauka maila bateko edo besteko agiriirik. Horrek ez du esan nahi euskara batere ez dakitenik, azterketa egin eta gainditu ez dutenak bai baitira horien artean. Eskolak emateko EGA edo Bigarren Hezkuntza Eskakizuna derrigo-

Irakasleen euskalduntzea ikasturtez ikasturte



Irakasleen hizkuntza eskakizunak



Iturria: IRALE

rezkoa da. Irakasleen euskalduntze prozesuaren bilakaera nabarmena da, eta hein batean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari atxikia dagoen IRALE programak eragin du halako aldaketa. CCOO, ELA, LAB eta EILAS sindikatuekin hitz egin dugu IRALEri buruz. Azken 30 urtean emandako aurrerapausoa ez du inork zalantzan jarri. Alabaina, bi kontu azpimarratu dituzte: bata, 2010ean IRALEko hitzartutako murrizketek azken urteotan programak hartutako norabidea eten dutela –CCOO eta UGT ez dira iritzi horretakoak–, eta bestea, sortzen ari diren premia berriei erantzuteko diseinu berria behar duela IRALEk.

“Begi bistakoa da etengabe aldatu dela IRALE, bere sorreraz geroztik. Berrikuntzak etengabe ari gara txertatzen, aldian aldiko beharretara egokituz”

MIKEL ZALBIDE, HEZKUNTZA SAILEKO EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

Diseinu berria, sindikatuen aldarria

IRALE 1981-1982 ikasturtean abian jarri zenetik, bilakaera nabarmena izan da. Ikasturte horretatik 1998-1999ra bitartean irakasle kopuruek urtez urte gora egin zuten behe mailako ikasketetan. Aldiz, 1999-2000tik aurrera behe mailako ikastaroetan matrikula kopurua etenik gabe jaitsi da eta gora egin dute goi mailako ikastaroek. Behe mailako ikastaroak Lehen eta Bigarren Hizkuntza Eskakizuna –bigarren horren parekoa da EGA– lortzeko eskolak dira, eta goi mailakoak berriz, ziurtagiri horiek eskuan, euska-

ra maila hobetzeko dauden ikastaroak –R ikastaroak izenekoak–. Kopuruak horrela aldatu izanak bi arrazoi nagusi bederen badi-tu: batetik, gero eta irakasle gutxiago dago euskaraz ez dakienik, eta beste-tik, euskaraz ez dakiten irakasle gehienak 50 urtetik gorakoak dira; horietako batzuek jada titu-lua lortzeko liberazio garaiak xahututa dauzkate. IRALE irakasleak euskalduntzeko sortu zen, eta beraz, esan daiteke hasieran zeukan egitekoa bete duela neurri handi batean.

Orain berriz, zein betekizun du IRALEk? Galdera hori egin diegu lehen aipatu ditugun lau sindikatu-entz. LABeko Jon Urrusoloren ustez, “eskola asko aldatu da eta IRALEK XXI. mendeko eskola-beharrei erantzun behar die. Denboran zehar aldaketatxoak egin dira eta horiek esaten digute nondik jo behar duen programak. Badakigu norabide berriak zein beharko lukeen, baina intuizioz dakigu. Intuizioa berresteko datuak behar ditugu. Ikerketa orokorrik ez da egin”. LABek etorkizunerako lau lerro proposatu ditu: irakasleek beren hizkuntza kalitatean hobetu eta euskal curriculumean sakondu dezatela; IRALEk azter dezala zer egin dezakeen ikastetxeko eragile guztien euskararen erabilera sustatzeko; ikerketa lerroa zabaltzeko eta irakasleak prestatu ditzala ikasleen euskara erabilera eragiteko; eta euskaldundu gabe geratu diren irakasleak euskalduntzea.

EILASeko Manolo Martinezen iritziz, IRALEren osoko ebaluazioa behar da eta beste enfoke bat eman behar zaio, euskalduntze arloa bazterrekoa baita orain. Irakasleen euskara kalitatearen aldeko apustua egitea aldakarrizten du sindikatuak. Martinezen aburuz, programaren ebaluaketa

“Badakigu IRALEren norabide berriak zein beharko lukeen, baina intuizioz dakigu, intuizioa berresteko datuak behar ditugu”

JON URRUSOLO, LAB

seriorik ez da egin eta aldaketak kolpeka egin dira. CCOOek ere aldaketa sakona eskatzen du, eta ikerketa sakonik ez dela egin azpimarratu du. Horraino beste sindikatuen ildo

berean doa, baina aurrera begirako erronketan badago alderik. CCOOeko Ana Urangaren ustez, irakasleen euskara hobetzeko ildoak lehenetsi behar da, eta horrekin batera euskalduntzearekin segi. Bestelako proposamena ere badute: HE1 eta HE2 hizkuntza eskakizunak eskuratzeko egiten diren azter-

ketek ez dezatela chuneko ehun balio, ebaluaketa jarraiak balio dezala, hau da, ikasleen asistentziak, jarrerak... ere puntuazioan balio dezatela.

Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren buruak, Mikel Zalbidek, zera esan digu: “Begi bistakoa da etengabe aldatu dela IRALE, bere sorreraz geroztik. Berrikuntzak etengabe ari gara txertatzen, aldiari aldiko beharretara egokituz”. Sindikatuak ikerketa sakonaren beharra eta diseinu berria aho batez eskatzen dituztela esan diogu, eta berak honela erantzun digu: “Ez diot ezetzik. Ebaluazio-lan sakonik egin izan da lehen ere, behin baino gehiagotan, eta aurrera begira ere mahai gainean dago eginkizun hori”.

R600 galtzaile

2010eko ekainean sinatu zuten Hezkuntza Sailak eta CCOO eta UGT sindikatuak 2012ko hondarrera arte iraungo duen lan hitzarmena. Ondorioz, IRALEk

hartu duen bidea ondokoa da: lehentasuna izango dute irakasleen euskalduntzeak eta hizkuntzari zuzenean lotutako guztiak, bigarren mailan geratuko da batik bat curriculumaren euskal dimentsioa jorratzeko alorra. Norabide aldaketa hobeto ulertzeko R ikasta-

“R600 curriculumaren euskal dimentsioa irakasteko da eta Gobernuak eta CCOOek kolokan jarri dute murrizketen bidez”

MANOLO MARTINEZ, EILAS

gure artean euskaraz

Euskaltzale bizkaitarrak

100. urteurrenean

GAU ILLUNA (S. Juan de la Cruz)

“Gau illun batez barrua maitasun-antsiz sutan nebala, zorioneko ordua! urten dot inok ez nenkusalá, nire etxea baketan zala.”

(1911-1991)

Aita Lino Akesolo Olivares

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

IRALEko ikasle ohien tripako minak eta pozak



Isabel Dominguez, elkarriketatuetako bat.

"Tokatu zitzaidan lehenengoa izan zen Artean. Ni heldu nintzenean hara izan zen terriblea, ze ez nuen ezer ulertzen. Nik uste dut... jende horrek pentsatuko zuen ni gorra nintzela. Ze, eske, ematen nuen egun osoa 'zer?' esaten. Ez nien ulertzen... irakasleei. Ni nengoen klaus-troan, eta piperrik ez nuen ulertzen. Baina, berriz, gogor- ratzen dut... nik EGA atera berria neukan, eta ikasleek, berriz, esaten zidaten 'ze ondo hitz egiten duzun, ande- reño!' Zergatik? Ba, liburuak bezala hitz egiten nuelako. Nik esaten nien kontrakoa, 'ze nolako pena daukadan nik zuek bezala ez hitz egitea!'"

Hori kontatu duen IRALEko ikasle ohiaren ezizena Paula da. Olatz Erdozia eta Josu Unzueta IRALEko ira-

kasleek elkarriketatutako hamasei ikasleetako bat da. Erdoziak eta Unzuetak behin baino gehiagotan entzun dituzte IRALEko ikasleak kexaka: "Ikuskariak eta datu biltzaileak datoz guregana, paperak eta paperak eska- tzen dizkigute, baina inork ez digu galdetzen zelan sen- titzen garen". Alegia, nola bizi duten euskara ikastea. Erdoziak eta Unzuetak Jon Maia bertsolariak IRALEko ikasleei kontatutako hizkuntza bizipenak zituzten gogo- an, eta nola, ikasle horiek berak malkoak eutsi ezinik ikusi zuten *Bidaia Intimoak* dokumentala. Korrika 16rako 2009an ekoiztutako lanean, lau euskaldunek euskararekiko sentipenak kontatzen dituzte. IRALEko bi irakasleek nabari zuten euren ikasleak dokumentaleko protagonistekin identifikatzen zirela, bakoitzak bidaia linguistiko ordezkazina zuela, eta batik bat, kontatzea merezi zuela. Elkarriketak egiteko, besteak beste, Biz- kaiko Sestao eta Barakaldoko eta Arabako Amurrio, Audio eta Araia bailarako ikasleak aukeratu zituzten, oso eremu erdaldunetakoak. Bideo kameraren aurrean norberaren hizkuntza bidaia azaldu zutenerako, eskole- tan klaseak emateko derrigorrezkoa duten Bigarren Hizkuntz Eskakizuna lortua zuten.

Bi motatako ikasleak dira elkarriketatutak: batzuek ez zuten inolako harremanik euskararekin, eta beste batzuen kasuan, etxean euskararen belaunez belaune- ko katea eurengana iristerakoan eten da; gaztelania baino ez dute jaso. Batzuentzat zeharo arrotza zen

roak aipatu behar dira, alegia, EGA edo HE2 gainditu eta gero, hobetzen segitzeko diseina- tuta dauden ikastaroak. Orain dela hamabost bat urte jarri ziren abian R300 ikastaroak, eta geroago abiatuak dira R400 eta R600. Lehe- nari esker ikasleek euskararen kalitatea hobe- tzeko aukera dute; bigarren- eskola material espezifikoa pre- statzeko baliatzen dute ikasleek. Adibidez, Lanbide Heziketako irakasleek R400 egin ohi dute oraindik euskaraz sortu gabe dagoen materiala prestatzeko. R600i esker euskal literatura, historia eta kultura ikasten dituz- te irakasleek. Hezkuntza Sailak 2010-2011 ikasturtean R500 eta R700 ikastaro berriak jarri ditu abian. Lehenengoa ahozkitasuna lantzeko da eta bigarren- glotodidaktika –hizkuntzen ira- kaskuntzaz arduratzen den didaktika arloa– ikastaroa. Krisia dela-eta, IRALEren aurre- kontua murriztu dute, eta ondorioz, hainbat ikastaroren orduetan eta parte har dezakeen ikasle kopuruan eragin du. Murrizketa poto- loenak R300, R400 eta R600ek izan dituzte: lehenengoak kupoaren aldetik, bigarrenak ordu kopuruari dagokionez eta hirugarrenak

alde bietatik. Batean kendu, bestean ipini, 540 plaza eskaini dituzte, aurreko ikasturtean baino 102 gutxiago.

Koro Agote Donostiako IRALE Irakaste- giaren zuzendaria da eta eskolak prestatzera- koan aldaketek eragin handia izan dutela dio:

"R600en ere murrizketa gogorrak egin dituzte. Ikastaro horrek erakusten du IRALEk hartua zuen bidea, eta orain bide hori moztu nahi dute, poliki-poliki eta elegante"

EDU ARRIETA, ELA

"Aldaketa urtea izan da. Irakas- leei ez die batere ilusiorik egin aldaketak, material berria presta- tu behar dute eta orain artekoa askoz gutxiago baliatuko dute. Adibidez, R600 ikastaroa 2004az geroztik ari gara lantzen. Orain ordu kopurua eta ikasle kopurua murriztu dituzte. Moldaketa lan guztiak urte batetik bestera egin behar izan ditugu".

IRALEz hartu diren erabakiak ez dira LAB, ELA eta EILASen gustukoak izan. ELAko Edu Arrietak lan hitzarmenaren balorazio ezkorra egin du: "Batez ere R batzuetan egin dituzte murrizketak. Eskola 2.0 modan jarri dute eta horretarako materia- la sortzeko erabiltzen ari dira R400. Baina ikastaroak gutxiago irauten du orain eta ira- kasleek ez daukate denborarik dena presta- tzeko. R600en ere murrizketa gogorrak egin dituzte. Ikastaro horrek erakusten du IRA-

mundurako bidaia izan da, eta beste batzuentzat, sus-
traietara itzulera. Azken finean, ikasle horiek barruan
dutenaren hustuketa modukoa egin dute bideo kame-
raren aurrean eta haurrak zirenetik euskararekiko izan
duten harremana mahai gainean jarri dute.

Euskara titulua lortzeko prozesua ez da hasi eta buka
etenik gabea izan. Elkarrizket-
tuetako asko Francoren garaian
gazteak ziren eta egoera sozio-
politikoak eraginda euskarara
hurbildu ziren. Ahal zen
moduan euskara ikasten hasi
ziren, gau eskolara joanez adi-
bidez. Gero, haurrak tarteko
utzi egin zioten... eta berriro
heldu. IRALEko ikastaroetara iritsi aurretik, hamasei
elkarrizketatu horietako askok hamaika saiakera egin
zuen euskara ikasteko. Ondoren, batzuek errazago eta
besteek ez hainbeste, euskara titulua lortu zuten. Ala-
baina, euskararen abentura ez da amaitu besapean
titulua hartu dutenean.

Ikasleak pozik eta harro daude egin duten ibilbidea-
gatik, bai IRALE baino lehen emandako pausoengatik
eta baita IRALEn ikasi dutenagatik ere. Pozik eta harro
egoteak ordea, ez du esan nahi hamaika ezin eta frus-
trazio ez dauzkatenik. Olatz Erdoziak eta Josu Unzueta
luze egindako hamasei elkarrizketetatik ondorio oroko-
rrak atera dituzte. Eskolak lehen gaztelaniaz eta orain
euskaraz ematen dituzten irakasleek laguntza behar

dute, titulua eduki arren euskara bigarren hizkuntza
baitute, lanabes kamutsa. Irakurri besterik ez dago
Paulak kontatutakoa. Orduak eta orduak igaro dituzte
euskara ikasten eta titulua lortu arren, beldur handia
diote eskolak euskaraz emateari. Gainera, irakasle
horietako batzuren ametsa euskara lan hizkuntza baino

bizitza hizkuntza bihurtzea zen,
eta egoera horretatik urrun
sentitzen dira. Ez dugu ahaztu
behar irakasle horiek eremu
erdaldunetako eskoletan ari
direla lanean; sarri euskara
ikasleekin aritzeko hizkuntza
baino ez dute, ikastetxeko ira-
kasleek beraiek ere euren

artean gaztelaniaz egiten dute. Eskola gizartearen ispi-
lua da, ikastetxeko atetik kanpora antzeko egoera aur-
kitzen dute, bizitza gaztelaniaz egiten dute. Eskolako
gazteentzat sarri euskara-eredu dira irakasleok eta
ardura handia sentitzen dute bizkar gainean. Elkarrizke-
ta sorta egin duten IRALEko bi irakasleen ustez, irakas-
le horiek motibazio handia erakutsi dute, euskara inpo-
satu egiten den ideia horretatik oso urrun, baina
ezagutzen ahultasunak dituzte eta euskara nahi baino
gutxiago darabilte. Dena ez da ezina eta negarra, Erdo-
ziaren eta Unzueta ustez, eredugarri dira irakasleok,
batetik, norbanako gisa egin duten ahaleginagatik, eta
bestetik, sektore gisa halako euskalduntze prozesurik
inork egin ez duelako.

Ikasleak pozik eta harro daude egin duten ibilbideagatik, bai IRALE baino lehen emandako pausoengatik eta baita IRALEn ikasi dutenagatik ere

LEk hartua zuen bidea, eta orain bide hori
moztu nahi dute, poliki-poliki eta elegante.
Atzerapausoak ematea da hori”.

EILASeko Manolo Martinezek argi du
murrizketak arrazoi ideologikoak jarraituz
egin direla: “IRALEk kalitatearen aldeko
apustua egin behar zuela argi zegoen eta oso
ondo baloratzen ditugu R ikasta-
roak. R600 curriculumaren eus-
kal dimentsioa irakasteko da eta
Gobernuak eta CCOOek kolo-
kan jarri dute murrizketen
bidez”. Bi ikastaro berriei buruz
dio gaizki diseinatuta daudela,
denbora gutxiko ikastaroak dire-
lako eta irakasleek ikasleak ikas-
gelan zintzilik uzten dituztelako.
Bestalde, glotodidaktikaz ikasta-
roa antolatzea bitxia egin zaio Martinezi:
“Irakasleok gauza bat behintzat badakigu:
gero irakasteko nola ikasi behar den. Nire
ustez, hiru hizkuntzako eredia gogoan dute-
la prestatu dute ikastaro hau. Ikasgaiak inge-
lesezt eman beharko dituzten irakasleak izan-
go dituzte gogoan”.

Eztabaida gehien sortu duen ikastaroa
R600 da. LAB, ELA eta EILASek oso bali-
garritzat dute, eta aldiz, CCOOen ustez, ikas-

“R600 ez luke IRALEk eskaini behar, irakasleen prestakuntzarako den Garatu programaren barne egon beharko luke”

ANA URANGA, CCOO

taro hori ez luke IRALEk eskaini behar, ira-
kasleen prestakuntzarako den Garatu progra-
maren barne egon beharko luke. Dena dela,
Ana Urangak argitu du ez direla guztiz ikasta-
roaren aurka jarri, nahiz eta murrizketa han-
diak egin, ez baitute kendu. R600 alde batera
utzita, CCOO ez dago R-ak murriztearen
alde. Irakasleek zer eskatzen
duten, ikastaroak nola baloratu
dituzten ikusi behar da eta
eskaera horiei erantzun.

Oraingoz, ikastaroetako eskaera
eta eskaintza ez datoz bat. R300
eta R600erako kupoak bete egin
dira eta hainbat irakasle kanpoan
geratu da. Irakasleek ikastaroa
bukatutakoan betetzen duten
balorazio orriaren arabera, ikas-
taro horiek, R400 bezala, oso gustuko dituz-
te. Aldiz, R500 eta R700 ikastaroen kupoak
ez dira bete.

2011-2012 ikasturtean egin nahi dituzten
R-ak aukeratuta dauzkate dagoeneko irakas-
leek. Apirilaren 18an jakingo da R bakoit-
zean zenbat irakasle egin duen eskaera.
Datuak behin-behinekoak izango badira ere,
irakasleen beharren eta nahien berri emango
digute. ■